

INGURUMEN HEZIKETA SAIOAK IKASTETXEETAN

Debarrenako Mankomunitateak ingurumen heziketa saioak eman izan ditu eskualdeko ikastetxeetan, eta Nazioarteko Ingurumenaren Egunaren harira (ekainak 5), ikasturtearen bigarren seihilekorako saio bereziak antolatu ditu.

Saioek helburu dute birziklapen ohitura egokiak zabaltzea belaunaldi berrietan, Mankomunitateak hondakinen kudeaketan egiten duen lana ikusaraztea eta ulertaraztea eta ingurumenarekiko errespetua eta zaintza zabaltzea.

Mankomunitateko ingurumen teknikariak gidatuko ditu saioak eta **ordubeteko** iraupena izango dute. Euskaraz eta gaztelaniaz izan daitezke eta ondorengo gaiak jorratuko dira:



Hondakinen sailkapena nola egin birziklatuz.

Ingurumen arazoak mundu mailan – hondakinen kudeaketan dauden erronken testuingurua.

Hondakin kopuru handia sortzeak dakartzan ondorioak.

Eskualdean herrika sortutako hondakinen sailkapena eta ematen zaien tratamendua zatikika.

Hondakinak murrizteko, berrerabiltzeko eta gaika biltzeko gomendioak.

Ingurumen heziketa saioa zure ikastetxean egitea nahi baduzu, mesedez, jarri Mankomunitatearekin harremanetan ingurumena@debarrena.eus helbidean.

SESIONES DE EDUCACIÓN AMBIENTAL

La Mancomunidad del Bajo Deba suele impartir sesiones de educación ambiental en los centros escolares de la comarca y, con motivo del Día Internacional del Medioambiente (5 de junio), ha organizado sesiones especiales para el segundo semestre del curso escolar.

Las sesiones tienen como objetivo difundir los hábitos de reciclaje adecuados a las nuevas generaciones, a la vez que visibilizar el trabajo de la Mancomunidad en cuanto a la gestión de residuos y extender valores como el respeto y cuidado por el medioambiente.

El técnico de medioambiente de la Mancomunidad guiará las sesiones y tendrán una duración de **una hora**. Las sesiones se impartirán en euskera o castellano, dependiendo de las preferencias del centro, y se tratarán los siguientes temas:



Cómo clasificar los residuos mediante el reciclaje.

Problemas medioambientales a nivel mundial – contextualización de los retos en la gestión de residuos.

Consecuencias de generar grandes cantidades de residuos.

Análisis de los residuos que se generan en cada localidad de la comarca y el tratamiento que se les da a los residuos por fracciones.

Recomendaciones para la reducción, reutilización y recogida selectiva de residuos.

Si tenéis interés en realizar la sesión de educación medioambiental en vuestro centro, por favor, escribid a ingurumena@debarrena.eus.